


ATEGI

Hornidurak



Erosketa-prozesuan adituak gara eta gure bezeroen aurrerapena da gure xedea.

Gure helburua da gure bezeroei errentagarriagoak eta lehiakorragoak izaten laguntzea, dauden tokian daudela

Nazioarteko taldea dugu, guztira 35 espezialista baino gehiago mundu osoan (USA, Mexiko, Espainia, India, Txina, Vietnam eta Taiwan), erosketa integral bat eskaintzen duena eta bezeroaren beharretara pertsonalizatua

GURE BALIOAK

lankidetz

300 enpresak eta enpresa-taldek baino gehiagok erabaki dute beren erosketen kudeaketa ATEGIN zentralizatzea, kostuak murrizteko eta beren enpresa arloko eraginkortasuna eta errentagarritasuna areagotzeko

aurrerapena

Gure bezeroen mozkinak maximizatzeak eta gure inguruan aberastasuna sortzeak mugitzen, motibatzen eta inplikatzen gaitu. Enpresa errentagarriak eta sendoak izaten laguntzea, eraginkorra da gure gizartean aurrerapen jasangarria (etika, gizarte, lan eta ingurumen arlokoa) sortzeko

espezialistak

Know how, profesionaltasuna, zorroztasuna, metodologia, taldea, esperientzia, etengabeko hobekuntza, etab...

ATEGIk kudeaketa espezializatua egiten du erosketa-familia bakoitzean (energia, garraioa, telekomunikazioak, etab.), bezero bakoitzaren beharretarako pertsonalizatzen du eta erosketa-prozesuaren zerbitzu osoa eskaintzen du

gertutasuna


Gertutasuna, entzute aktiboa eta elkarrekintza dira komunikazioaren oinarrizko osagaiak. Eta gure bezeroekiko kudeaketan, aukeraz betetako bidea da komunikazio ona. Harreman guztietan konfiantza funtsezkoa dela ere badakigu, horregatik saiatzen gara gure lana egiteko modua eta metodologia gardentasun osoz partekatzen

ZERBITZUAK



Aholkularitza

- Lehiarako kokapenaren diagnostiko pertsonalizatua egiten dugu
- Zure enpresarentzako erosketa-estrategiarik egokiena aztertzen dugu (kostuak murriztu, prozesuak hobetu, nazioartekotzea, etab.)
- Eraldaketa plana diseinatzen eta hedatzen dugu



Erosketen Zentrala

- Erosketa irtenbidea pertsonalizatzen diogu bezero bakoitzari
- Erosketen kudeaketa bateratu eta zentralizatua egiten dugu
- Erosketa bolumenak piltzen ditugu, beharrak koordinatuz
- Kontratazio eta zerbitzu baldintzak optimizatzen ditugu



Erosketa zerbitzuak

- Proiektuak neurrira egiten ditugu
- Hornitzaileen prospekzioa, ikuskaritza eta ebaluazioa egiten dugu
- Negoziatu egiten dugu, kontratuak eta esleipenak kudeatzen ditugu
- Erosketa prozesua antolatzen dugu
- Gastuaren kontrola aztertzen dugu

CATEGORÍAS DE COMPRA

HORNIDURAK

Horniduran enpresentzako beharrezko hainbat produktu eta zerbitzu daude. Zerbitzu edo produktu hauek banaka hartuz gero, ez dira agertzen erosketen kudeaketan lehenetasuna dutenen artean, bolumenik handiena ez dutelako; baina totalen hartuz gero, gastuaren ehuneko esanguratsua osatzen dute eta optimizatze aukera nabarmenak dituzte.

- Erosketaren kudeaketaren ziklo osoari begiraten diogu, gure bezeroen beharren azterketarekin hasi, kontratuen negoziazioa eta esleipen proposamenak egin eta esleitutako akordioen ezarpen eta jarraipenerarte.
- Hainbat horniduren erosketak kudeatzen ditugu eta gure bezeroen erosketa-bolumenak batzen ditugu, kontratu komunak negoziatzeko eta erosketa-baldintzak hobetzeko, zerbitzuaren baldintzetan arreta berezia jarritz.
- Bezeroaren beharren arabera proiektuak ere garatzen ditugu, eskariaren berezitasunek hala eskatzen dutenean.
- Gure kudeaketaren xedea, gure bezeroen hornikuntzaren kostu osoaren optimizazioa lortzea da, ez soilik tarifako salneurriak hobetzea. Gure balio ekarpena hazi egiten da kanban kudeaketa bezalako zerbitzuekin, makina banatzaileen zerbitzu eta ordezkapenekin, entrega pertsonalizatuekin edo artikuluen kodifikazioarekin, besteak beste; zerbitzu horiek guztiak hornitzaileekin ditugun akordioetan garatzen ditugu, bezeroetan erosketa hauen kudeaketa hobetzeko.
- ATEGIK kudeatutako kategoría nagusiak hauek dira:



NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK:

- Lanerako babes pertsonaleko elementuak, adibidez, eskularruak, oinetakoak, betaurrekoak, kaskoak, arnesak, aurikularrak, etab.

LANEKO JANTZIAK:

- Laneko jantziak, prakak, alkandorak, txalekoak, batak, jakak... bezero bakoitzak eskatutako pertsonalizazioarekin (logotipoak, bordatuak, etab.).
- Laneko jantzien proiektu integralak ere kudeatzen ditugu, hau da, arropa neurria egitetik hasi eta beste zerbitzu batzuetara arte, adibidez, garbiketa, konponketa edo erabiltzaileen armairuetan arropak berriro gordetzeko zerbitzua

TRESNERIA:

- Tresneriaren barruan industriarako hornigai ugari daude:
 - ebakitzeko erremintak,
 - eskuko erremintak,
 - neurketarako eta kontrolerako erremintak,
 - makina eramangarriak,
 - urratzaileak,
 - torlojuak,
 - itsasgarriak, etab.

GAS INDUSTRIALAK

- Sektore ugari (metalurgiak, beirak, urak, elikadurak, medikuntzak, energiak, petrokimikak, laborategiak, izozteak, hozteak, enologiak...) gas industrialak erabiltzen dituzte beren ekoizpen prozesuetan. Aplikazio-eremua oso zabala denez, gas industrialen erabiltzaileen beharrak ere asko aldatzen dira bolumen, purutasun, osaera eta banatzeko motei dagokienez.
- Gure xedea, gure bezero guztien beharrak modu pertsonalizatuan artatzea, beren jarduera optimizatzen laguntzea, kostuak murriztea eta ekoizpena hobetzea da. Horretarako, hornitzaile nagusiekin negoziatzen da kostuaren hobekuntza, gure bezeroek preziorik eta zerbitzurik hoberenak izan ditzaten.



Bulego Hornikuntza

Artikulu orokor ugari dira, bulegoetan lana egiteko erabiltzen dira artikulu guztiak eta hainbat motakoak daude: idaztekoak, artxiiboak, tonerrak eta inpresoren kartutxoak, fotokopiagailurako papera, etab.

- Gure bezeroei 1.200 erreferentzia baino gehiagoko katalogoa eskaintzen diegu, eta beraiek jakinarazten dizkiguten beharren arabera eguneratzen da; banaketa zerbitzu eraginkorra 24-48 ordu bitartekoa da estatu mailan.



Facility Management proiektuak

- Bezeroek, beren erosketaren kudeaketan gero eta gehiagotan behar dituzte irtenbide pertsonalatuak eta integralak; erosketak eraginkorra izan behar du eta balio handiagoa erantsiko duten zerbitzu gehigarriekin osatu behar da.
- Bezero bakoitzaren neurrirako proiektuak garatzen ditugu eta zeregin osagarri batzuen burutzapena koordinatzen dugu, horri esker, gure bezeroek espezializazio, bizkortasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen dute beren jarduera nagusiko zerbitzuetarako.



Zerbitzu
Orokorrak

ZERBITZU GRAFIKOAK:

- inprimatutako papergintzako ohiko produktuen erosketa kudeatzen da, adibidez, bisita-txartelak, gutunazalak edo zenbait inprimaki, baita produktu grafikoak ere, esaterako, katalogoak, liburuxkak, kartelak, triptikoak, diptikoak edo flyerrak

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA

5

- Gure enpresek nazioarteko merkatuan gero eta presentzia handiagoa dutenez, kalitatezko itzulpengintza eta interpretazio zerbitzua beharrezkoa da, jatorrizko hizkuntzari leial izan eta itzulpenaren edo interpretazioaren xede den hizkuntzaren nortasuna errespetatuko duena, baita enpresa mugitzen den sektore bakoitzeko espezializazioa ere.
- Hori dela eta, itzultzen ari den testua, mezua eta estiloa ahalik eta leialen itzultzen duen zerbitzua dugu, UNE 15038 arauaren arabera itzulpen-prozedurako baldintzekin. Teknologiaren erabilpenean oinarritutako irtenbide aurreratuen hornitzaile bat dugu, 400 itzultzaile homologatu baino gehiago eta 150 hizkuntza-bikote baino gehiago itzulpen-beharrak dituzten enpresentzat


BULEGOA ETA TAILERREN GARBIKETA

- Irtenbide pertsonalizatuak eskaintzen ditugu mota guztietako enpresentzat, neurria edo jarduera dena delakoa izan arren; enpresa bakoitzaren garbiketa beharretara egokitzen gara.
- Kontratuak modu eraginkorrean kudeatzen ditugu, beharrezko baliabideak optimizatzeko eta kostuak murrizteko

HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEAKETA

- Prozesu industrialen ondorioz hondakin arriskutsuak sortzen dira, baina aldi berean, azken hamarkadetan ingurumena zaintzearen kezka ere hazi egin da eta baita jatorri industrialeko hondakin arriskutsuei irtenbide egokia aurkitzeko kezka ere.
- Europar Batasunaren arabera, irtenbiderik egokiena hondakinak sortzeari aurrea hartzea eta osagaiak birziklatuz hondakin horiek ekoizpen prozesuan berriro sartzea da, ikuspegi ekologikotik eta ekonomikotik irtenbide jasagarriak daudenean.
- ATEGIN, ados gaude ikuspegi honekin eta horregatik gure bezeroei beren hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatzen laguntzen diegu Batzordearen 2014/955/EB Erabakiaren arabera sailkatzetik eta amaierako tratamendura arte, indarrean dagoen eta ezar daitekeen lege-diaren arabera, eta kostua murriztuta.
- Gure xedea bezeroei hondakin arriskutsuen kudeaketarako zerbitzu egokia eskaintzea da, ingurumena errespetatuko duena eta kostuei dagokienez arrazoizkoa izango dena

KATEGORIA GEHIAGO



KONTAKTUA

Zortzi toki ezberdinetan kokaturiko nazioarteko taldea dugu, bezeroak behar duen lekuan zerbitzua eman ahal izateko



Bulegoak

Bulego Zentralak

Parque Tecnológico Garaia
Edificio B, 3a planta
20500 Arrasate/Mondragón
Gipuzkoa/Guipúzcoa – España

T: +34 943 71 19 30
FAX: 943 77 31 01
comunicacion@ategi.com

Como llegar

China, Shanghai

Ategi Trading (Shanghai) Co.,
Ltd.
Room D/F2,14F, East Ocean
Center Phase II,
No. 618 Yan An East Road,
Huang Pu District,
Shanghai, 200001, China

T: 86 21 63410728/29/30

Como llegar

China, Shenzhen

Room 20Cb-A1, 20F, Block B.
Bank of China Tower.
Caitian Road, Futian District,
518036, Shenzhen, China.

T: +86 75583752452,
F: +86 75583752453

Como llegar

Taiwan

T: 0086 2163410729

Vietnam

6th floor, Rolanno Business
Center.
157 Vo Thi Sau St, Ward 6, Dist. 3,
HCMC, Vietnam.

T: +84 838206034
F: +84 838207335
Cómo llegar

India

F-89/8, 1ST & 2ND floor. Okhla In-
dustrial Area.
Phase I. New Delhi-110020

T: +91 11 40649000,
F: +91 11 40649001
Cómo llegar

USA

1401 New York Avenue, NW,
Suite 1225
20005 Washington, D.C.
Estados Unidos

T: +1 202-463-7877
F +1 202-861-4784
mpeck@mapagroup.net

[Como llegar](#)

México

Ejército Nacional 678, Oficina
201
Colonia Polanco
C. P. 11550 MEXICO DF

T: 3097-5811

[Como llegar](#)